

Xedapen Orokorrak

KULTURA SAILA

1557

62/2009 DEKRETUA, martxoaren 10ekoa, Euskadiko «Gazte-Txartela / Carnet Joven» eratu eta arautzeko den Dekretua bigarren aldiz aldatzeko dena.

Maiatzaren 2ko 260/1995 Dekretuaren bidez, Eusko Jaurlaritzak Gazte-Txartela zerbitzua jarri zuen martxan, gazteentzako interesgarri eta lagungarri diren zerbitzuak eta ondasun kultural zein materialak eskuragarriago egon daitezkeen eurentzat. Gazteei erraztasunak eta aukerak ematea da, beraz, helburua, era horretara, alor kultural eta sozialean izan ditzaketan beharrianak asetzeko aukera handiagoak izanda, euskal gazteen bizimodua hobea eta erosoagoa izan dadin.

Egitarau hau garatzerakoan izandako esperientzian oinarrituta eta euskal gazteriak egun lan-munduan, ekonomian, gizartean eta Europako egoera berrian bizi duen errealitatea aintzat izanik, aipatutako txartelak bere helburuak bete ditzan on litzateke orain indarrean dagoen araudia moldatzea. Era horretara, kudeaketa administratiboa hobeto bideratuko da eta euskal gazteriarene eskaera eta beharrianei erantzun egokiagoa emango diegu testuinguru europarrean.

Ildo horretatik, on litzateke txartela erabil dezaketean onuradunen adin-tartea zabaldu eta gaur eguneko errealitateari egokitzea. Era horretara, eskaintako trataera guztientzako berdintsuagoa eta hobea izanda, gazte gehiagok izango du hainbat zerbitzutara iristeko aukera.

Ondorioz, Kultura sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2009ko martxoaren 10eko bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.— Euskadiko «Gazte-Txartela / Carnet Joven» eratu eta arautzeko maiatzaren 2ko 260/1995 Dekretuaren 2. artikulua aldatzea. Aurrerantzean honako era honetan geratuko da idatzita:

«2. artikulua.— Gazte-Txartela agiri pertsonala da eta, beraz, gazte bakoitzak berea erabili beharko du beti. Eusko Jaurlaritzak emango die agiri hori horretarako eskabidea egiten duten gazteei, bete beharreko baldintzak bi hauek izanik: 14 urtetik 30era bitarteko gazteak izatea eta Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzea.»

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE CULTURA

1557

DECRETO 62/2009, de 10 de marzo, de segunda modificación del Decreto de creación y regulación de «Gazte-Txartela / Carné Joven» de Euskadi.

Mediante Decreto 260/1995, de 2 de mayo, se estableció por el Gobierno Vasco el servicio de Gazte-Txartela con el fin de facilitar y posibilitar el acceso de los jóvenes a la plena utilización de los bienes culturales, materiales y servicios que pudieran revestir interés para su propio desarrollo, contribuyendo de esta forma a la mejora de las condiciones de vida del/la joven vasco/al ampliar la posibilidad de satisfacer las necesidades que se le susciten en el terreno cultural y social.

La experiencia acumulada en el desarrollo del programa y la nueva realidad europea, sociológica, laboral y económica en el que la juventud vasca se halla inmersa aconsejan, para que el citado carné alcance los objetivos señalados, una modificación de la regulación vigente en aras a posibilitar su mejor gestión administrativa así como una mayor adecuación y respuesta dentro del contexto europeo a la demanda y necesidades del colectivo juvenil vasco.

En tal sentido procede adecuar la edad de los potenciales beneficiarios de dicho carné a la realidad vigente, favoreciendo, así, un mejor y más igualitario tratamiento de los mismos ante la prestación de determinados servicios.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Cultura y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 10 de marzo de 2009,

DISPONGO:

Artículo único.— Modificar el artículo 2 del Decreto 260/1995, de 2 de mayo, de creación y regulación de «Gazte-Txartela / Carnet Joven» de Euskadi, que quedará redactado de la siguiente forma:

«Artículo 2.— El carné Gazte-Txartela / Carné Joven es un documento de carácter personal e intransferible expedido por el Gobierno Vasco a favor de los/las jóvenes con edad comprendida entre los 14 y 30 años y residentes en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco que así lo soliciten.»

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko martxoaren 10ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Kultura sailburua,
MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 10 de marzo de 2009.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Cultura,
MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.